

JOSE ALCAMIrekin ONLINE TOPAKETA:

“COVID-19aren aurkako txertoa. Amaieraren hasiera?”

José Alcamí, Barne Medikuntzako espezialista eta Mikrobiologiako doktoreak, koronabirusaren jatorriari, bilakaerari eta COVID-19aren aurkako txerto posibleari buruzko webinar-a eskainiko du "COVID-19aren aurkako txertoa. Amaieraren hasiera?" izenburupean. Donostiako Udaleko Gizarte Kontseiluak antolatu du hitzordua, eta urriaren 1ean izango da, 18:30ean, Zoom plataformaren bitartez.

“**Coronavirus, ¿la último pandemia?**” liburu arrakastatsuen egilekidea, gainera, Coronavirusari buruzko Analisi Zientifikoko Taldeko koordinatzailea da Madrilgo Carlos III Osasun Institutuan, eta han HIESaren Immunopatologia Unitatea ere zuzentzen du.

Alcamí, gainera, Bartzelonako Clinic Ospitaleko GIB Unitateko zuzendari zientifikoa da, eta aditu ezaguna birus infekzioen eta immunitate sistemaren arteko azterketa eta interakzioan.

Guztira 180 argitalpen zientifiko eta 100 liburu-kapitulu argitaratu ditu, eta Europako eta Espainiako gaixotasun infekziosoen ikerketaren arloko aholku-batzorde ugarietan parte hartzen du. Gainera, pandemiaren bilakaera aztertu du pepealcamicoronavirus.blogspot.com blogean.

Webinarrak **Eneko Goia** Donostiako alkatea eta **Daniel Zulaika** Gizarte Kontseiluko presidentea izango ditu buru, eta **Kepa Korta** hiriko Estrategia Bulegoko zuzendariak moderatuko du. Ordu bete inguruko iraupena izango du, eta galderak egin ahal izango dira plataformaren beraren bitartez.

Parte hartu nahi dutenek irailaren 29a baino lehen bete beharko dute [esteka honetan](#) agertzen den galdetegia. Inprimakia beteta jaso ondoren, Zoom plataformara sartzeko esteka bidaliko zaie webinar-a ospatu baino egun bat lehenago.